

## AITA PIO SAROBE

### ASTIGARRAGA

Aita Sarobe Astigaraga'n  
jaio zan zorionean,  
umerzurtz zala, Jaunak deituta,  
sartu zan praille tartean;  
Mixiolari gartsu egiñ zan  
Peru barruko oyanean,  
santutasuna gorengo maillan  
bizirik danen aurrean.

### ZORITXARRA

Zoritxarra izaten oi da, sarri askotan, gizaseme askoren ondamentia. Ez da ez, izan be, gauza erreza zoritxarrak garaipena eta zoriona ekartea. Zoritxarra ez da, orraitio, gaitzik okerrena giza bizitzan. Bai, oster, bere ondoren garratzak: barrua garratzuta bizi izatea, lur jota buru makur ibiltea, eta bere menpe gorrian pot egitea. Zoritxarrari eup egiñ eta arpegia emon bear jako.

Aita Sarobe'k, Astigarraga'n jaiok (1855) zoritxarraren erpe zorrotzak ikusi zituan txiki-txikitatik, bada, ama il jakon jaiotzatik ogeita bat egunera, eta aita andik amai-ka illebetara.

Zoritxarraren zantzua ete dakar umezurtz bigun onek? Gure artean esakun zaar oneik entzun oi dira: "Begi txarrak jota dago ori". "Ementxe amaitu da orren izangoa".

Zer egiñ? Biziari bizmena ipiñi. "Illak il, eta biziak bizi-maiña. Ez dago beste biderik. Gure umezurtzak bere esku ditu munduko ondasunik bikaiñenak: bizia eta fedea. Bere barruko indar eta eragiteaz esan bear ko dau: eutsi bizitzari eta aurrera. Bizitzari sinismena eta maitasuna ipiñi ezker zergaitik izutu etorkizunaz?

Pio Sarobe'k, zorionez, bere senitartekoen artean abegirik onena izango dau; eta geroago Franzizkotarren artean. Karlisten gudu gogorrian Frantzia aldera iges egiñik, andik Peru'ra etorriko da.

### AURRERA EGIÑ

Aurrerapenak ez dau mugarik eta mugarririk. Giza semeen izan-naiak eta gaitasunak beti ditu zabalik etorkizunaren zelaiak. Zorigaitza bera, eta eragozpenik gorrienak be, indar bultzagarria izaten dira gizon biozdunentzat.

Aita Piok, orixe bai, gogoan josita daukoz txikitatik izandako guraso-miñak. Gomuta illun orrekin zer egiñ?

Junak jun eta gaurdanik gora aurrerapena eta etorkizuna izango da bere legea. Eliz ikasteak gogotsu egiñik Franzizkotarren artean praille eskintza agindu eta apaiztuko da.

Euskal seme jator onen argitasuna, zuzentasuna eta gaitasunak ikusirik Franzizkotarren Nagusi izango da aintbat urteetan (1888-1906). Noiz baiño noiz azkarrago eta baliotsuago dalarik praillegaien zuzendari be izango da.

Berebiziko ekarria da mixioak, bederatziturrenak eta gogo jardunak emoteko. Ez da gauza erreza gure moduko sermoi garratzakin emengo lagunengina irabaztea. Ondo daki ori aita Pio'k. Eta alegiñak egingo ditu Jaunaren Barri Onari barruko zer bat, biguntasun bat, eztitasun eta biotz ikutu samurra ezarteko.

Zer moduzko gizona da aita Pio? Gorputzez argala ta lerdena, penitentzi zalea, otoitz-bera, lanari eten barik emona, lege zaarreko profeta zorrotz bat dirudi. Bere bizitzaren santutasuna eta eragintasuna eguzkiaren argia bezala zabaltzen da lagun guztien artean.

Mixiolari santu bati dagokion lez, aita Pio bere giroan, mixio-zelaian ilko da garizuma neketsu batean (1910), 55 urtedun dalarik. Bere eriotzaren barri jakiñaz batera jende talde aundiak batuko dira azken agurra emotera. Euskaldun gotzain batek, Santiago Irala'k ospatuko ditu bere illetak eta goratu aren izena ta bizitza santua. Bere illobira, gaur egun be, lagun-talde aundiak datoz goi mesedeak eskatuzera.

Aita Pio'ren doatsupidea aspalditik asita dago eta bere idazlanak ontzat artuak. Azkenengo ogeitamar urteetan egindako bere arimaren egunaria aita Izagirre'k argitaratu dau. Egiaz bere arimaren ixpillur dirudi.

Aita Pio Sarobe'ren santutasunaren grazia Euskal erri-raño zabaldu bedi.

URIGUEN'TAR ZENON

